

ERREZILGO UNIBERTSITATEA


Errezilgo gunea


Argisaingo Santa Marina

Errezil 32,2 km²-ko udalerria da, Ernioko mazizoaren magalean kokatua. Zestoa, Aia, Asteasu, Larraul, Bidegoian, Albiztur, Beizama eta Azpeitia ditu mugakide. Gainera, enklabe txiki bat du hegoaldean, Santa Marina auzoan.


Ernioko gailurra eta Zelatun


Errezil erreka, Azpeitiko bidean

Herriko gunerik garaiena Ernioko da (1.077,9 metro) baina adierazi beharra dago mendi dotore honen tontorreko gurutzea Albizturko lurretan dagoela, metro gutxigatik bada ere. Gunerik sakonena berriz, udalerriaren mendebaldean dago, Errezil erreka ko urak Azpeitiko mugartean sartzen diren inguruan hain zuzen ere.


Gaintzain

Hegoaldean ere, Santa Marinako enklabean, badago baserriren bat: Kateleku, Gaintzain eta Mutiainzar hain zuzen ere. Hauek eta Albiztur, Bidania, Goiaz eta Beizamako beste etxe batzuk Santa Marina parrokiakoak dira.


Pagadia



Hariztia


Gazumen, lehen pagadia izandakoa, gaur larre


Hariztiaren eremu potentziala

Jarduera antropikoak beheko lurrak lantzeko luberritu ditu eta goiko eremuetako basoak larreak lortzeko moztu, herrialde osoan bezalaxe, antzinako landaredia goitik behera aldatuz. Esan daiteke berezko landaredia haritzek –altuerarik gutxieneko edo ospelako eremuetan– eta pagoek –eremu garaienetan edo laiotzetan– osatuko luketela. Harri-azaleratzeetan –Ernio eta Aketegiko kare-harrizko harkaiztegietan bereziki– horrelako landare-formazioak agertzen dira. Gaur egun, lehen bi formazioek –hariztiek eta pagadiek– oso azalera txikia betetzen dute eta oihaneztatzeak eta belardiak berriz, ugariak dira.


Landazabala, Iraola baserriak


Larreak eta harkaiztokiak


Koniferen landaketak, Urgoenen


Gazumeko harkaitzegia

Baztanle-aztarnarik zaharrenak goi-paleolitokoak dira (duela 12.000 urtekoak). Garai hartakoak dira Aitzorrotz eta Aintzuloko haitzuloetan aurkitutako hondakinak. Monumentu megalitikoak, hala nola Sagaraingo bi trikuharriak eta Munaraingo bi tumuluak (maparen ipar-ekialdean), modernoagoak dira, duela 4.000 urtekoak hain zuzen ere.


Sagarain zelaia, artzaintzaleku eta monumentu megalitikoen euskarri.


Arburuako borda

barne hartzen dituena eta landazabaleko paisaje tipikoa duena eta, bestetik, goiko ingurua, batez ere haranaren iparraldean kokatua eta erliebe malkartsua, harri-azaleratze handiak eta oso biztanle gutxi dituena. Azken zona honetan basoak, zura lortzeko sail landatuak eta larreak dira nagusi.


Muino lauetako tontorra, Arzallusko Añoa...


... eta aldapa handiak Albitsuko inguruetan.


Mendibeltz Aketegitik

Desnibel handien eta mendi-hegaletako aldapa nabarmenen eraginez, erreken higadura-ahalmena oso handia da. Gainera, erreka hauek haran txikiak oso sakonean sartzen dituzte, ibaiarte zorrotzak sortuz. Ondorioz, udalerri osoan erliebeak gorabehera handiak ditu eta inguru lauak edo aldapa txikikoak muino lauetako tontorretan (egitura tipikoa eremu euskal-kantauriar osoan) eta haran nagusiaren hondoan besterik ez dira agertzen.

Beti Errezilgo harana aipatzen bada ere, kontuan izan behar da Zelatun, Gazume eta Ernioko larre eta basoen beste aldea ere udal-mugartekoa dela. San Juan Iturriozkoaren eta San Isidro Erdoiztakoaren ermitak eta Bedama auzoa (baserri gutxi batzuetako biztanleak besterik ez dituena), ezagutu izan dugun eta eskuetatik ezinbestean joaten ari zaigun bizimoduaren erakusle isilak dira gaur egun.


Iturriotz


Bedamako bailara


XVI. gizaldian Errezil Unibertsitatea bihurtu zen


Iparraldeko lurrak

Lehen berri historikoak hurbilagokoak dira, noski, baina oso antzinakoak hala eta guztiz ere. 1027. urtean, Nafarroako Antso III.a Gartzes Nagusia erregeak Errezil aipatu zuen Iruñeko Gotzain-hiriaren mugapeari buruzko dokumentuan. Aurrerago, 1397an, Gipuzkoako Ermandadeko Ordenantzetan Aia, Goiaz, Bidania, Errezil eta Beizamak osatzen zuten Saiazko Alkatetza Nagusia aipatzen zen. Alkatetza Nagusian Alkate Nagusiak agintzen zuen eta erregeak zuzenean izendatzen zuenez eta normalean gortean bizi zenez gero, horrek biztanleen atsekabea sortzen zuen. 1563an egoera horren berri Zestoan egindako Batzar Nagusietara eraman zuten eta, bertan, leku bakoitzari bere alkatea izendatzeko ahalmena eman ziezaion eskatu zitzaion erregeari. Erregeak baiezkoa eman zuen eta, ondorioz, Errezil udalerri independente bihurtu zen, ez ordea Udal gisa, Unibertsitate gisa baizik. Desagertutako Saiazko Alkatetza Nagusia Saiazko Batasuna bihurtu zen. Administrazioerakunde hau arestian aipatutako kontzejuek osatzen zuten eta Batzar Nagusien eta Batzar Partikularren aurrean ordezkaritza eta gastuak bere gain hartzen zituen. 1651n Albiztur elkartu zen.


Borondegiko armarria

Alkatetza komun honen herentzia bat, udalerri hauek Argisaingo Santa Marinan dituzten enklabeak dira. Auzune honek parrokia eta hilerria ditu eta gaur egun bertan oso jende gutxi bizi bada ere, mendeetan kostaldearen eta barnealdearen eta Urola eta Oria ibaien haranen arteko transhumantzia eta merkataritzako ibilbiderik garrantzitsuenetakoak elkartzen zituen landagune txiki bat zen, beste asko bezalaxe. Mugen inguruan behin eta berriz gertatutako auzi eta liskarren ondorioz –Bidaniarekin bereziki–, 1792an Juan Bautista Arruti ordezkari izendatu zuten arazoa behin behingoz konpontzeko.


Baserria izan da, eta da. Errezilgo biztanlegoaren oinarria.


Lasturreta, Azpeitia eta Beizamako mugan.


Errezilgo alderdi demografikoak bi kontzeptu nagusitan labur daitezke. Alde batetik, demografiak XX. mendean izan zuen bilakaera kontuan hartuta, lehen 60 urteetan biztanle-kopurua egonkorra izan zela (1.500 ingurukoa) ikus dezakegu. 60 eta 70eko hamarkadetan berriz (azken honetan batez ere), izugarrizko beherakada izan zen eta biztanle-kopurua ia erdira jaitsi zen. Handik aurrera eta gaur egun arte, beherakada txikia baina jarraitua izan da.


Baserri asko utzita...


Lapurbenta, garai bateko benta.

Galera demografikoaren fenomeno honi lotuta dagoen bigarren kontzeptuari dagokionez, adinaren araberako egiturak populazio zahartua erakusten du. eskualdearen gainerako zatian eta Gipuzkoa osoan baino zahartuagoa eta beste landaherri batzuen antzekoa. Ondorioak garbiak dira: baserri asko utzita, aurri-egoeran edota jabe berriek aldi baterako egoitza bihurtuta eta zalantzazko etorkizuna adin handiko biztanle bat edo bi dituzten beste ustialeku askorentzat.

Populatzeari dagokionez, udal-mugartearen erdian dagoen hirigune txiki bat agertzen da elizaren inguruan. Gaur egun ardatz nagusia errepideak eratzen badu ere, dagoen hiri-egitura txikia automobilentzako egungo bidea baino beheragoko antzinako errege-bideari egokituta dago. Gainerako eraikin gehienak haran nagusiaren hondoan kokatuta daude. Dena dela, urrunagoko eremu batzuetan badaude baserri batzuk eta, kasu batzuetan, auzune txikiak osatzen dituzte, hala nola bi baserri, ermita bat eta eskola batzuk dituen Erdoizta izenekoa, aurrekotik hurbil eta ia jenderik gabe dagoen Bedama izenekoa. Bentaberriko bidegurutzean sortutako etxe-multzoa eta abar. Administratiboki, hirigune nagusiaz eta arestian aipatutako Santa Marinako enklabeaz gain, Arzallus (ipar-mendebaldean), Erdoizta (iparraldean), Letea (ekialdean), Ezama (hego-ekialdean) eta Ibarbia (hego-mendebaldean) bereiz daitezke.



Hiriguneko egitura



Errezilgo populaketa tipikoa



Gernika plaza eta Errege Bidea


Erdoiztako San Isidro

Jarduera ekonomikoa nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarrituta dago funtsean. Hala ere, eta Errezilen bizi arren udalerritik kanpo lan egiten duen populazio-sektore garrantzitsuaren ondorioz, jarduera ia proportzio berean banatuta dago nekazaritza, industria, eraikuntza eta zerbitzuen artean. Hortaz, udalerrian landa-ingurunearen berezko jarduerak dira nagusi: basoustiapena, nekazaritza eta abeltzaintza.


Azulegiko barrutia


Azulegiko minen arrastoak


Zelatundik Iturriotzerako bidean, ardiak

Ondareari dagokionez, Errezil oso aberatsa da. Bere paisajearen edertasuna dela eta, haran hau Gipuzkoako postal tipikoetako bat da (Iturburuko inguruetatik hartuta): baserri eta


Errezilgo paisaiaren aberastasuna: Aketegi...


... Antzelai baserrirako bidea...


... Gazumeko larreak...


... Irumugarrietako basoak ...


... Ibarbiabarrena eta Utsetako harkaitza....


... Granadako Iturrierrota...

... Mandaiturri ...

... Bearri ...

zelai akotatuak, gorago basoak eta larreak eta, ondoren, Ernioko gailur lerdenak, kare-harrizko harkaiztegi malkartsuak agertzen dituztenak. Errezilgo paisajea benetan ikusgarria da.

Ondare higiezina ere interes handikoa da. Eraikin erlijiosoak oso deigarriak dira, biderik garrantzitsuenen ondoan antolatutako ermiten kopuruagatik batez ere. San Migel Goikoaren ermita baliteke Erdi Arokoa izatea, aztarnak kontuan hartzen baditugu (arku zorrotzeko atea eta leiho konopiala). Hirigune aldera eginez, San Jose santutxoa dago eta, bertan, Zallurroako San Martingo parrokia-eliza, XVI. mendean aurreko tenplu batean egindako erreformaren ondoriozkoa. Garai hartan eraiki zioten, besteak beste, daukan dorre lerdena. XVIII. mendean, tenplua absidearen aldetik zabaldu eta portada egin zen (1713an).

Herriko iturria

San Antonio ermita

Haranean behera, hilerriaren ondoan, XIX. mendeko Santo Kristoren ermita dago. San Antonio ermitarekin harrizko gurutzez egindako gurutze-bide baten bidez lotua. Hirigunearen eragin-eremutik irten eta haraneko zonarik lauenera hurbildu ta, San Migel Bekoa ikus dezakegu. Landa-ermita polit honetan harlanduzko lana eta Errenazimentuko erretaula bat azpimarratu behar dira. Zona lau honek San Migel ermita du goiko aldean eta oso antzekoa den San Esteban ermita beheko aldean. Oso deigarria da Doneztebe baserria, honen deitura San Esteban izenaren euskarazko forma arkaikoa baita.

San Antonio ermitaren ondoko kalbarioa

San Migel Bekoa

Errezilen beste bi ermita gehiago daude: San Isidro Erdoiztakoarena, Gipuzkoan dauden bi ermita zirkularretako bat eta Pedro J. Ugartemendiak proiektatutako eraikin neoklasiko bikaina, eta San Joan Iturriozkoarena. Asteasu eta Aiako mugan baina Errezilgo lurretan dagoena.

Zurruntzolako errota

Jarduera ekonomiko bati lotutako beste eraikuntza-mota bat eraikin hidraulikoak dira, lanerako uraren indarra aprobetxatzen zuten errotak eta burdinolak hain zuzen ere. Zentzuzkoa denez, haranaren beheko eremuan kokatuta daude, urak nahikoa ur daraman lekuan. Goitik hasita, lehena Lizarretaerrota da, bere garaian egiten zuen lanaren arrasto gutxi gordetzen dituena. Hurrengoa, Landarrainerrota izenekoa, interesgarriagoa da, makineria gorde baitu. Haranaren eskuinaldeko Utsetaerrotak berriz, erortzeko dauden horma gutxi batzuk besterik ez ditu. Zutik dirauen Zurrunzolabekoa izenekoa, izenak berak adierazten duen bezala, errota izan aurretik burdinola izan zen. Errezil errekatik uretan behera eginez agertzen den azken baserriak Artaunola du izena eta, toponimiari jarraiki, energia hidraulikoarekin zerikusia zuela esan daiteke.

Gainerako eraikin gehienek landa-arkitektura tradicionalari lotuta daude eta batzuk fabrikagatik edo dituzten elementu bereziengatik dira azpimarragarriak. Hirigunean Etxeberri, Apaizetxea, Kantoia –1794koa–, Borondegi eta Etxeandia dira aipagarrienak. Azken bi hauek

Apaizetxea

Errekondoko leihoa

Kantoiko giltzarria

Kanposantu bideko harria

Galarragazarra

armarri bana dute fatxadan, harrizkoa eta zurezkoa hurrenez hurren. Udalerriaren gainerako zatian, dauden ia 400 baserrien artean ondokoak azpimarratu behar dira: Armendi bere adreiluzko egituragatik, Errekondo eta Agerrebekoa –armarriduna– antzinako oinetxeak, Telleria, Torreberri, Loidigoikoa, Loidiazpikoa, Iraolaberri, Urteagazarra, Aranzadizabal, Pildain, Otume, Iturriaga, Ibarbiabarrena, Galarragagoena –Erdi Aroko arku zorrotza duena–, Galarragabitarte, Iturrieta, Barrensoro, Etxeberritxo, Etumeta –bi arkuko karrerapea duen antzinako benta–, Antxiturbi eta Zubitxo.

Ibarbiako leihoak

Errezilgo jaiak azaroaren 11n egiten dira San Martinen ohorez. Beste egun garrantzitsu batzuk abuztuaren 29aren –San Joan Bataiatzailearen martirioa– ondorengo lehen igandea eta hurrengo hiru igandeak dira. Egun hauetan Ernioko erromeriak egiten dira. Erromeria hau Gipuzkoako herri-tradiziorik errotuenetako eta koloretsuenetako bat da.

Ernioko gurutzeak

Turismo-azpiegiturari dagokionez, gaur egun hainbat jatetxe, ostatu eta nekazalturismoko etxe aurki ditzakegu. Halaber, udal-mugartean behar bezala balizatu eta seinaleztatutako luzera txikiko (PR) ibilbide bat dago. Gainera, Ernio eta Aketegi mendietako gailurretarako igoerak eta ibilaldiak egiteko aukera ere badago.

Gazumeko bidea

Azulegiko bordako atea

Zalditoiturri

Gazumetxiki

Komisiolatzako lepoa eta gurutzea

PR-GI 83
IBILBIDEA
GR 34
PR-Gi 84
Errezil-Otsabiaga-Trintxera-Errezil
Luzera: 9,5 km
Gainbehera: 400 m
Iraupena: 3 ordu
ERREZIL
A R Z A L L U S
I B A R B I A
B E D A M A
E Z A M A
L E T E A
A I A
'ASTEASU
T X I L L A R R A M E N D I
Z e l a t u n
E R N I O
P a g a u n t z a
A i z k i b e l
U r g o e n e
G a z u m e
I n d o
B I K A R I O
U r r a k i
Ezkurromendi
Aitztxorrotx
Txantio
Munarain
Morrtua
Komisiolatza
Txakurleizeta
Erreketaldeko aldapa
Arrakume
Ezkurroa
Iruresoro
Agerregoena
Gurutzetxeko
Belaunburu
Txorondegi
Munomendi
Artzegi
Markesbaso
Etumeta
Zelatun
Ernio
Gazume
Urraki
Ezama
Letea
Ibarbia
Arzallus
Pagauntza
Aizkibel
Erdoiztaberri
Eskolak
Erdoizta
Gárate
Galtzeko saletxea
Gurutzeko saletxea
Arburuko txabola
Pagoarteburua
Sarobeta
Gurutzeta
Arloa
Erreka(a)undi
Utsetako saletxea
Gazumeazpiko txabola
Gazumeko txabola
Mendibeltz
Aketegi (Gazumeko gaina)
Lapurzuloeta
Zezenarri
Zulopotoeta
Eikamendi
Eikamengo txabola
Bearriaga
Ezurtza
Semero
Basaerre
Azulegi
Urgoeneko txabola
Gazumeko bidea
Gazumetxiki
Aranzadizabal
Urteagaberri
Urteagazarra
Arzallusberri (Katrain)
Otegiberri
Otegiazpikoa
Sarobeberri
Arzallusgoikoa (Kurtzaeneai)
Arzallusarriazpikoa (Kurtzaeneai)
Arzallausuruzkoa (Lazkaoenea - Napoleon)
Arzallusondoko (Kurtzaeneai)
Laxalbola
Estradaberri
Estradazarra
Itsasgain
Zumuntzolabekoa (errota)
Zumuntzolabekoa (Errezil)
Aritzegi
Bentaberri
Utseta
Abiritxu
Ugarre
Trekuzaletxe
Traku
Umansoro
Ernatxiz
Aldaskun
Irumugarrieta
Ernioko gurutzea
Aintzeku
Jona
Sarriagobarruti
Beteluts
Txintxillu
Sagatseta
Azteta
Ekaña
Arroitz
Leizeta
Akutxu
Otagain
Bordaberri
Mugaratz
Iturriotz
Iturriotzarri
Leizeberriko gaina
Agerregoenako saletxea
Sagarain ordeka
Sagarainko txabola
Gazumeko txabola
Gazumeazpiko txabola
Mendibeltz
Aketegi (Gazumeko gaina)
Eikamendi
Eikamengo txabola
Lapurzuloeta
Zezenarri
Zulopotoeta
Azulegi
Basaerre
Bearriaga
Ezurtza
Semero
Senaoko sitrebeak
Arloa
Erreka(a)undi
Utsetako saletxea
Sarobeta
Gurutzeta
Gorostieta
Sorrarats Meatzaricados Real
Aranzadizabal
Urteagaberri
Urteagazarra
Arzallusberri (Katrain)
Otegiberri
Otegiazpikoa
Sarobeberri
Arzallusgoikoa (Kurtzaeneai)
Arzallusarriazpikoa (Kurtzaeneai)
Arzallausuruzkoa (Lazkaoenea - Napoleon)
Arzallusondoko (Kurtzaeneai)
Laxalbola
Estradaberri
Estradazarra
Itsasgain
Zumuntzolabekoa (errota)
Zumuntzolabekoa (Errezil)
Aritzegi
Bentaberri
Utseta
Abiritxu
Ugarre
Trekuzaletxe
Traku
Umansoro
Ernatxiz
Aldaskun
Irumugarrieta
Ernioko gurutzea
Aintzeku
Jona
Sarriagobarruti
Beteluts
Txintxillu
Sagatseta
Azteta
Ekaña
Arroitz
Leizeta
Akutxu
Otagain
Bordaberri
Mugaratz
Iturriotz
Iturriotzarri
Leizeberriko gaina
Agerregoenako saletxea
Sagarain ordeka
Sagarainko txabola
Ezkurroa
Aitztxorrotx
Iruresoro
Agerregoena
Txantio
Munarain
Morrtua
Komisiolatza
Txakurleizeta
Erreketaldeko aldapa
Arrakume
Txorondegi
Munomendi
Artzegi
Markesbaso
Etumeta
Zelatun
Ernio
Gazume
Urraki
Ezama
Letea
Ibarbia
Arzallus
Pagauntza
Aizkibel
Erdoiztaberri
Eskolak
Erdoizta
Gárate
Galtzeko saletxea
Gurutzeko saletxea
Arburuko txabola
Pagoarteburua